


Jazarpen egoerak

Protokoloak **jazarpen egoerak** identifikatzen erraztuko du edota jazarpen egoera baten aurrean aurkituz gero, bermezko babes eta erantzun azkarra ematen ere lagunduko du.



Lan-jazarpena,
sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena,
sexu-orientazio, sexu-identitate edo genero-adierazpenagatikoko jazarpeneri aurre egiteko

Protokoloa



LAN-EREMUAN JAZARPENA PREBENITZEKO ETA AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

KABIAk ez du inolako indarkeria-motarik onartzen bere antolakundeetan, bereziki lan-jazarpenzat, sexu-jazarpenzat, sexuan oinarritutako jazarpenzat eta sexu-orientazio, sexu-identitate edo adierazpenagatiko jazarpenzat har daitekeen jokabiderik.

KABIAk langileen duintasuna eta aniztasuna errespetatu nahi ditu, haien osasuna eta emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa babestu; horrez gainera, erakunde-kultura jakin bat sustatzea eta zaintzea nahi du, errespeturako eskubidearen eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen kontra doan jokabide oro identifikatzea eta gaitzestea ahalbidetuko duena.

Konpromisoak


- Errespetuan eta zuzentasunean oinarritutako indarkeriarik gabeko lan-ingurune segurua sustatzea.
- Beharrezkoak diren neurriak jartzea, halako jokabide onartezinak irmotasunez eta ez bairik gabe prebenitzeko eta haien gainean esku hartzeko.
- Ekintzak planifikatzea eta garatzea langileei honako balio hauek barneratzen laguntzako: tratu-berdintasuna, errespetua, duintasuna, nortasunaren garapen askea eta jazarpeneko jokabideen bazterketa.

Helburuak

- Langileei jarraibideak ematea, gai izan daitezen lan-eremuko jazarpen egoerak identifikatu eta ezagutzeko.
- Esku-hartze goiztiarrerako mekanismoak eta ikerketa prozedura bizkorra, argia eta laburra ezartzea.
- Langileen duintasuna eta osasuna babestea.
- Indarkeria mota oro desagerrarazten laguntzea.

Jazarpen kasu baten berri emateko

Aholkulari konfidentzialari jakinarazi:
kabia.jazarpena@gipuzkoa.eus
edo
943113348



DESKARGATU Lan-jazarpena, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena, sexu-orientazio, sexu-identitate edo genero-adierazpenagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa



Eskaneatuz

Informazio gehiago
<https://www.kabia.eus/eu/baliabideak>

